

Funtsezko jarduerak

Funtsezko jarduerak, produktuaren produkzioan, arazoaren konponketaren eta plataformaren edo sareko jardueretan datza. Printzipioz gure produktuaren produkzioa gure enpresan egitea pentsatu dugu, toki eta enpresa desberdinetatik jasotzen ditugun material eta baliabide guztiekin Kupra autoen bateriak kargatzeko konpatiblea den kargadore inalanbriko bat sortuko dugu.

Gure produktuak nolabaiteko arazo bat emango balu, gure enpresetan zerbitzu area batzuk irekiko genituzke bezeroak beraien egoera esplikatzen edo produktua aldatzeko inolako arazorik gabe, hori bai arazoa ondo justifikatuta eta errebixua pasa ondoren.

Baita ere jendeak desplazamendurako arazoak edukiko lituzketela pentsatu dugu, beraz telefono linea bat jarriko dugu martxan. Horrela bezeroarekin hitz-egingo dugu eta adibidez errebixua egitera produktua berak bidaliko luke eta arazo larri bat aurkitzean guk berri bat bueltatu. Honekin batera web orri bat irekiko genuke, bertan gure kargadoreen modelo desberdinak ikusteko, zalantzak baldin badaude guri idatzi edo deitzeko, eta ezaugarri eta instrukzio guztiak ondo azalduz.

